

..../2025 DEKRETUA, (r)en (e)koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duena.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legeak bere 6. artikuluan jasota du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua, administrazio publikoei aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko eta eztabaida sektoriala gauzatzeko organo izango dena. Organo hori kirolaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailera atxikita egongo da, eta halaberrez Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko ordezkariak osatuko dute batik bat kirol-, hezkuntza- eta osasun-arlokoek, eta, orobat, Euskadiko foru- eta udal-administrazioetako eta euskal kirol-federazioetako ordezkariak. Halaber, Kontseiluko kide izango dira jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan ospe handia duten pertsonak, esparru horretan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailaren titularrak izendatuta.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legeak ezartzen du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren barruan eratuko direla lege horretan aurreikusten diren azpibatzerde guztiak, bai eta osoko bilkurak erabakitzen dituenak ere. Halaber, erakunde arteko koordinazio-mahai bat eratuko da, arlo berberak eragindako administrazio publikoen jarduketan koordinazioa bermatze aldera, emaitza komun bat lortzeko helburuarekin, eraginkortasunez eta efizientziaz, hutsunerik eta bikoiztasunik gabe.

Dekretuaren helburua da organo bat eratzea euskal kirolaren esparruko sektore publiko eta pribatu guztietako ordezkariak elkartzeko. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua parte-hartze, kontsulta, eztabaida edo aholkularitza ahalbidetzen duen organo erabilgarria izango bada, ziurtatu behar da gure kirol-sistemako ikuspegi eta sentsibilitate guztiak bertan bilduta egotea. Halaber, Kontseiluaren osaerari lotutako aldaketa horrekin batera, antolaketa- eta funtzionamendu-arau berri batzuk ezarri dira, Kirolaren Euskal Kontseilua biziagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Bestalde, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren osaera, izendapen-sistema, funtzionamendu-araubidea eta funtzioak erregelamenduz ezarriko dira, gorago aipatutako /2023 Legearen 6.3 artikulua araber. Horrez gain, Legearen 3.2 f) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei esleitzen die Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua arautzeko eta antolatzeko eskumena.

Era berean, dekretuan emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria gehitzeaz gain, genero eta kirol aditu bat egotea ere aurreikusita dago, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren oinarritzko printzipio izan dadin. Horretarako, osaera orekatua eta paritarioa lortzeko irizpideak ezarri dira, bereziki kideak betetzen duten kargu instituzionalaren araber izendatzen ez direnean; hala, historikoki indarrean egon den desparekotasunak gainditu eta ziurtatuta egongo da genero-ikuspegia aplikatuko dela kirol-politiken arloan, bai aholkularitza ematen denean, bai horretaz eztabaidatzean bai kirol-politikak prestatzean.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko ... (e)an egindako bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.– Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea da arauz taxutzea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolaketa, osaera, izendatzeko sistema, funtzionamendu-araubidea eta zereginak.

#### 2. artikulua.– Definizioa.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko organo gorena da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko politikari lotutako gaietan, administrazio publikoei aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko eta eztabaida sektoriala gauzatzeko.

### 3. artikulua.– Atxikipen organikoa.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirolaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago, baina ez da hierarkia-egituran integratuko.

### 4. artikulua.– Eginkizunak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegorako kirol-politika orokorraren gidalerroak proposatzea, eta botere publikoen kirol-politiken lankidetzak, koordinazioa eta egituraketa ziurtatzeko neurriak proposatzea.

b) Kirolarekin zerikusia duten xedapen orokorren proiektuei buruzko txostenak egitea.

c) Kirol-modalitate eta -diziplinen kalifikazioari buruzko informazioa ematea.

d) Euskal kirol-federazioak eratzeko eta errebokatzekeo prozesu guztiei buruzko informazioa ematea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari eragiten dioten eta kirolaren arloko administrazio publikoek bere ardurapean jartzen duten beste edozein gai buruz informatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari eragiten dioten gaietan, herri-administrazioetako organoei iradokizunak eta jarduera-proposamenak zuzentzea.

g) Kontseiluaren jarduera, kirolaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan eta dagozkion gomendioak jasoko dituen urteko memoria onestea.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko politika orokorreko gidalerroak proposatzea Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren Zerbitzuarekin lankidetzak estuan arituz, bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzeko.

i) Beste edozein eginkizun, betiere organo horren esku-hartzea nahitaezkoa bada beste xedapen batzuen arabera.

### 5. artikulua.– Administrazio publikoen lankidetzak-betebeharra.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako organoek Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluak agindutako funtzioak behar bezala betetzeko eskatzen dien laguntza eskaini beharko dute.

## II. KAPITULUA

### ANTOLAKETA, OSAERA, IZENDATZEKO SISTEMA ETA EGINKIZUNAK

### 6. artikulua.– Antolaketa.

Kirolaren Euskal Kontseilua honela antolatuko da:

a) Osoko Bilkura.

b) Administrazio publikoen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Batzordea (aurrerantzean, HAKOBA

## KIROLA)

c) Unibertsitate Kirolaren Azpibatzerdea.

d) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontrako azpibatzerdea.

e) Lehendakaria.

f) Lehendakariordea.

g) Idazkaria.

7. artikulua.– Osoko Bilkuraren osaera eta izendapena.

1. – Honako hauek osatuko dute Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkura:

a) Eusko Jaurlaritzan jarduera fisikoaren edo kirolaren arloan eskumena duen saileko titularrak.

b) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaritzako titularrak.

c) UPV/EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kirolaren Ataleko dekanok titularrak.

d) Gutxienez zuzendari-maila duen pertsona bat, Osasun Saileko titularrak izendatuta.

e) Gutxienez zuzendari-maila duen pertsona bat, Hezkuntza Saileko titularrak izendatuta.

f) Gutxienez zuzendari-maila duen pertsona bat, Segurtasun Saileko titularrak izendatuta.

g) Hiru foru-aldundietan kirol arloan eskumena duten diputatuak.

h) Hiru hiriburuetako kirol-zinegotziek.

i) Udal-administrazioaren ordezkari bat, jarduera fisikoaren eta kirolaren arlokoa, Kultura eta Hizkuntza Politika saileko titularrak izendatuta, EUDEL-en (Euskadiko Udalen Elkarte) proposamenaren arabera.

j) Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziadunen Elkargo Ofizialaren ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika saileko titularrak izendatuta.

k) Euskal Kirol Federazioen Batasuneko presidentea edo hark eskuordetua.

l) Modalitate olinpikoko euskal kirol-federazioen ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

m) Modalitate ez-olimpikoko euskal kirol-federazioen ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

n) Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren Legeak zehaztutako bertako kirol-diziplinen euskal kirol-federazioen ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

o) Jarduera fisikoa eta kirol inklusibo eta egokituaren ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

p) Kirolaren industriaren ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

q) Genero eta kirolaren arloko aditu bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

r) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoirengatik agertutako indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren arloko aditu bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

s) Basque Team Fundazioaren ordezkari bat, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

t) Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan ospe handia duten hiru pertsona gehienez, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta.

u) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko funtzionario bat, Kultura eta Hizkuntza Politikako titularrak izendatuta. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko idazkaritzaz arduratuko da, eta hitza izango du baina botorik ez.

2.– Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko lehendakariak aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonak bilkuretan parte hartzea eska dezake. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

3.– Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak izendatuko dira Kultura eta Hizkuntza Politikako titularraren Agindu bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

8. artikulua.– Osoko Bilkuraren eginkizunak.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak eskumen hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko politikari eragiten dioten ildoak proposatzea.

b) Kirolari lotutako lege-arloko xedapen-proiektuei buruzko irizpenak onestea.

c) Kontseiluaren jarduera, kirolaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan eta dagozkion gomendioak jasoko dituen urteko memoria onestea.

d) Osoko Bilkuran dauden kirol-sektore publiko eta pribatuak ordezkatzeko dituzten eta euren esparruan sortzen diren batzorde sektorialetako kideak izendatzea.

e) Kontseiluko lehendakariak egokitzat jotzen dituen kirolaren-esparruko gaietan esku hartzea.

9. artikulua– Osoko Bilkurako kideen agintaldia.

1. – 7.1 artikuluko a), b), c), d), e), f), g), h) eta k) idatz-zatietan aipatzen diren pertsonak Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkurako kide izango dira harik eta beren kargua edo izaera galtzen duten arte, kargu edo izaera hori izateagatik izendatu baitira.

2. – Artikulu bereko i) eta j) idatz-zatietan aipatutako kideek, berriz, izendatu dituzten entitateek formalki horien aldaketa jakinarazi arte beteko dituzte karguak.

3.– Gainerako kideen kargu-aldia lau urtekoa izango da, baina berriztatu daiteke. Halako kideren bat hiltzen bada, gaitasuna galtzen badu, karguari uko egiten badio edo antzeko arrazoiren bat suertatzen bada, haren ordezkari sartzeko dena ordezkatuari gelditzen zitzaien denbora egongo da karguan. Aipatutako gorabeherengatik hutsik gelditzen diren karguak hilabeteetan beteko dira, kontseiluko idazkaritzari horren berri ematen zaionetik zenbatzen hasita.

4.– Artikulu honen 3. paragrafoan aipatzen diren kideei dagokionez, Saileko titularra aldatzen bada, titular berriak Kontseiluaren osaera berrikusterik izango du, aurreko puntuan adierazitako epea amaitu ez bada ere. Halaber, Kultura eta Hizkuntza Politikako titularrak kargugabetu ditzake, organoak arrazoitzen badu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko kide izateagatik dagozkien betebeharrak betetzen ez dituztela.

5. – Kontseiluko kideek, oro har, eta kontrakoa adostu ezean, beren funtzioak betetzen jarraituko dute, ordezkoen izendapena indarrean sartu arte.

10. artikulua.– HAKOBA Kirola.

1.– Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren baitan erakunde-koordinaziorako mahaia sortuko da, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan eskumena duten administrazio publikoen jardueren koordinazioa bideratzeko, eta HAKOBA Kirola izena jarriko zaio.

2.– Honako hauek hartuko dute parte Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren HAKOBA (Herri Administrazio Koordinazio Batzordea) Kirolan:

- a) Eusko Jaurlaritzan jarduera fisikoaren edo kirolaren arloan eskumena duen saileko titularrak.
- b) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak.
- c) Gutxienez zuzendari-maila duen pertsona bat, Eusko Jaurlaritzan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko eskumena duen saileko titularrak izendatua.
- d) Hiru Foru Aldundietako Jarduera eta Fisikoa eta Kirolaren eskumena duten diputatuak.
- e) Hiru hiriburuetako kirol-zinegotziek.
- f) Udal-administrazioa ordezkatzeko duen pertsona batek, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak izendatuta, EUDEL-en (Euskadiko Udalen Elkarte) proposamenaren arabera.
- g) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluan idazkaritza-lanetan jarduteko izendatutako funtzionarioak. Hitza izango du, baina botorik ez.

3. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren HAKOBA Kiroleko lehendakariak aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonak bilkuretan parte hartzea eska dezake. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

4. – Honako funtzio hauek dagozkio HAKOBA Kiroleari:

- a) Tartean diren erakunde publikoen politikak koordinatzea, bakoitza bere jarduera- eta eskumen-eremuan.
- b) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko datuak, informazioak, esperientziak eta ezagutzak partekatzea.
- c) Ildo estrategikoak eta ekintzak koordinatuta kudeatzea, eta, behar izanez gero, jarduerak hobetzeko proposamenak egitea.
- d) Lurraldeko eta euskal kirol-federazioak eratzeko derrigorrezko txostena onestea.
- e) Jarduera bat kirol-modalitate kalifikatzeko eta hura osatzen duten diziplinak zehazteko derrigorrezko txostena onestea.
- f) Kirol-federazioen berezko funtzioak betetzeko kirol-erakundeak gaitzeko derrigorrezko

txostena onestea.

g) Kirol-ekipamenduen erroldak egiteko irizpide bateratuen arloko txostena onestea.

h) Lurraldeko eta euskal federazioen aintzatespena ezeztatzeke derrigorrezko txostena onestea.

i) Kontseiluaren jardueraren urteko memoria prestatzea, osoko bilkurak onetsi dezan.

j) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren egutegia eta jarduketa-lehentasanak ezartzea.

k) Agindutako beste edozein funtzio betetzea.

#### 11. artikulua.– Unibertsitate kiroleko azpibatzerdea

1.– Unibertsitate Kiroleko Azpibatzerdea sortuko da aholkularitza, kontsulta, jarraipena eta eztabaidarako organo izango dena.

2.– Unibertsitate Kiroleko Azpibatzerdea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren titularrak zuzenduko du, eta Kontseiluaren Osoko Bilkurarako izendatutako UPV/EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kirolaren Ataleko ordezkaria izango du kide. Halaber, Azpibatzerdean parte hartuko dute Euskadiko unibertsitateetako ordezkariak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak proposatuta.

3.- Unibertsitate kirolaren azpibatzerdeak zeregin hauek izango ditu:

a) Unibertsitate-kirolaren alorreko ildo eta proposamen orokorrak formulatzea eta unibertsitate-kirola sustatzeko programak egitea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateen arteko kirol-jarduerak koordinatzea eta horien jarraipena egitea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateen arteko kirol-lehiaketan antolaketa koordinatzea eta jarraipena egitea.

d) Lehiaketen eremua Euskal Autonomia Erkidegoa baino zabalagoa denean, beste lurralde batzuetako erakundeetako izaera berebereko organoekin batera jardutea.

e) Kirol-instalazioen plangintza eta kudeaketa koordinatzea eta arlo horretan laguntza teknikoa ematea, unibertsitate-kirolaren alorreko jarduerak programatzeko orduan ahalik eta koherentziarik handiena egon dadin, betiere, horretarako dauden espazioak eta eskaria kontuan hartuta.

f) Unibertsitate kirolarekin lotutako kontuen inguruko txostenak eta gomendioak ematea.

g) Azterlanak, ikerketak eta prestakuntza-ikastaroak egitea eta programak idaztea, betiere, unibertsitatearen esparruan kirol-jarduerak dituen helburuak lortzeko.

h) Helburuak berdintsuak dituzten erakunde edo organo publiko zein pribatuekiko lankidetzak bultzatzea.

i) Bere zereginak behar bezala burutzeko esleitzen zaizkion antzeko beste batzuk.

12. artikulua. – Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontrako azpibatzerdea.

1.– Jarduera fisikoan eta kirolean agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontrako Azpibatzerdea sortuko da, edozein motatako indarkeria edo diskriminazio desagerrarazteko aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko, eta neurriak proposatzeko.

2.- Azpibatzordea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak zuzenduko du, eta Kontseiluaren Osoko Bilkuran izendatutako indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren arloko aditua izango du kide. Halaber, Azpibatzordeko kide izango dira gaien esperientzia egiaztatua duten eta erakunde publiko edo pribatuetako aditu edo ordezkariak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak proposatuta.

3.- Honako funtzio hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan egindako jarduera fisikoan eta kirol-lehiaketetan edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioari buruzko datuak bildu eta argitaratzea.

b) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren zergatiari eta ondorioei buruzko txostenak eta azterlanak egitea.

c) Prebentzio-ekintzak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eta sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren esparruan bereziki.

d) Gomendioak prestatzea kirolaren arloko klub, elkarte eta federazioetarako, kirol-lehiaketak antolatzen dituzten gainerako erakundeetarako edo pertsonentzako eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen titularrentzako.

e) Informazioa ematea kirol-lehiaketen, kirol-diziplinaren eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen arloko xedapen-proiektuei buruz.

f) Jardunbide egokien kodea prestatzea, kirol-erakundeetarako eta kirolaren arloan esku hartzen duten gainerako eragileentzako oinarri izan dadin.

g) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa desagerrarazten lagunduko duen beste edozein funtzio.

13. artikulua.– Azpibatzordeak.

1. – Baliteke Azpibatzorde bereziak sortzea gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko. Osoko Bilkuraren edo HAKOBA Kirolaren akordioa beharko da horretarako. Batzorde horien zeregin nagusiak izango dira Osoko Bilkurari eta HAKOBA Kirolari laguntzea beren funtzioak bete ditzaten, eta azterlanak, proposamenak edo txostenak egitea, Osoko Bilkurak zein HAKOBA Kirolak eztabaidatu eta onets ditzaten.

2. – Jarduera fisikoaren eta kirolaren arlo espezifikoak jorrazteko eta kide anitzeko organo horiei laguntzeko sortzen den azpibatzorde horietako bakoitzean gehienez 6 pertsonak hartuko dute parte hurrenez hurren, eta HAKOBA Kirolak izendatuko ditu.

3. – Aipatutako azpibatzorde bakoitzeko titularra Eusko Jaurlaritzako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko zuzendari eskuduna izango da.

4. – Azpibatzordeek Kontseiluko idazkariaren laguntza izango dute.

5. – Azpibatzordeetako lehendakariak bilkuretan aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonak parte hartzea eska dezake. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

14. artikulua.– Kontseiluko lehendakaria.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren eta Osoko Bilkuraren lehendakaria Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularra izango da, edo hark bere ordezkari jarriko duena.

2. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren lehendakariari zeregin hauek dagozkie:

- a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua ordezkatzea.
- b) Bilkuretarako deia egitea, idazkaritzaren bidez.
- c) Bilkuretako gai-zerrenda finkatzea.
- d) Bilkuretarako zein azterlan egin behar diren zehaztea eta Kontseiluko edo azpibatzaordeetako zein kidek egingo dituzten aukeratzea.
- e) Bilkurei hasiera eta amaiera ematea.
- f) Eztabaidak zuzentzea, parte-hartzaile bakoitzari hitza emanez, esku-hartzeak moderatuz eta, hala badagokio, horien iraupena mugatuz, guztien parte-hartzea ahalbidetzeko eta bilkuren martxa ona bermatzeko.
- g) Erabakiak hartzerakoan berdinketarik bada, bere botoaren bitartez erabakitzea.
- h) Bere sinadurarekin baimentzea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren aktak baimentzea.
- i) Dekretu honek edo indarrean dauden arauak esleitutako gainerako funtzioak.

3.– Zeregin horiek Kontseiluko lehendakariordeari edo eskuordetutako pertsonari eman dakizkioke.

15. artikulua.– Kontseiluko lehendakariordetza.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren lehendakaria Kultura eta Hizkuntza Politika saileko titularra izango da, edo hark bere ordez jarritakoa.

2. – Kontseiluaren lehendakariordeari honako funtzio hauek dagozkie:

- a) Lehendakari-kargua hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik dagoelako edo antzeko beste edozein arrazoirengatik, horren ordez aritzea.
- b) Lehendakariak eskuordetutako zereginak burutzea.

16. artikulua.– Idazkaritza.

1. – Kontseiluko, Osoko Bilkurako eta HAKOBA Kirolako idazkaria izango da Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titullarrak sail horretako funtzionarioen artean izendatutako funtzionarioa. Idazkari horrek hitza izango du, baina botorik ez, eta sail horretako beste funtzionario batzuek lagundu ahal izango dute.

2. – Kontseiluan idazkari lanetan jardungo duenak jarraian aipatzen diren zereginak izango ditu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 16. artikuluan kide anitzeko organoetako idazkaritzetako titularrei esleitzen zaizkienez gain:

- a) Bilkuretako aztergaien zerrenda prestatzea eta bidaltzea.
- b) Lehendakaritzaren aginduz batzordearen bilkuretarako deia egitea.
- c) Lehendakariarekin batera bilkuretarako aktak idatzi eta igortzea.

d) Akta, txosten eta erabakien egiaztagiriak egitea.

e) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren kontsulta, espediente eta gainerako dokumentuen sarrera-irteera erregistroa eramatea.

f) Kontseiluaren azpibatzerdeetan koordinazio-lanak egitea.

g) Kide anitzeko organoetako idazkaritzako titularrei dagozkien gainerako funtzioak.

3.– Kargua hutsik badago, kanpoan bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, idazkari-lanak lehendakariak izendatutako kideak egingo ditu, edo Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko beste funtzionario batek.

17. artikulua.– Kontseiluko kideen eskubide eta betebeharrak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren kide anitzeko organoetako kideei zeregin hauek dagozkie:

a) Bilkuretara joatea eta horietan parte hartzea.

b) Botoa ematea, zergatia adieraztea eta, gehiengoarekin bat ez datozenean, boto partikularra ematea.

c) Kide anitzeko organo bateko kide diren aldetik dagozkien beste betebeharrak guztiak.

### III KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA

18. artikulua.– Osoko Bilkura.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak urtean behin egingo du ohiko bilkura. Kontseiluak ezohiko bilkurak egin ditzake baita ere, lehendakariaren ekimenez edo kontseilukideen bi herenek hala eskatuta.

Azken kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da, eta bilkuran aztertu beharreko gaia edo gaiak adierazi beharko dira idazki horretan. Ondoren, Osoko Bilkurako lehendakariak bilkurarako deia egingo du 15 eguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

19. artikulua.– HAKOBA Kirola.

HAKOBA Kirolak sei hilabeterik behin, gutxienez, egingo du ohiko bilkura. Kontseiluak ezohiko bilkurak egin ditzake baita ere, lehendakariaren ekimenez edo kontseilukideen bi herenek hala eskatuta.

Azken kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da, eta bilkuran aztertu beharreko gaia edo gaiak adierazi beharko dira idazki horretan. Ondoren, lehendakariak bilkurarako deia egingo du 15 eguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

20. artikulua.– Azpibatzerdeak

1. – Azpibatzerdeak iraunkorrak izan daitezke edo ez, eta eratzeko erabakian jasotakoarekin bat etorri jardungo dute.

2. – Azpibatzerdeak eratzeko erabakian ezarritako ohiko maiztasunaren arabera bilduko dira. Kontseiluak ezohiko bilkurak egin ditzake baita ere, lehendakariaren ekimenez edo kontseilukideen bi herenek hala eskatuta.

Azken kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da, eta bilkuran aztertu beharreko gaia edo

gaiak adierazi beharko dira idazki horretan. Ondoren, lehendakariak bilkurarako deia egingo du 15 eguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

#### 21. artikulua.– Deialdiak.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren deialdiak, edozein jarduketa-mailatan, lehendakariaren aginduz egingo dira, gutxienez zazpi egun natural lehenagoko aurrerapenarekin. Deialdian, honako hauek zehaztu beharko dira: gai-zerrenda, eta bilkura egiteko eguna, tokia eta ordua.

2.– Premiazko kasuetan deialdia 48 orduko gutxieneko aurrerapenez egingo da, eta premiazkoa dela berariaz justifikatu beharko da deialdiaren akordioan bertan.

#### 22. artikulua.– Bilkuren gai-zerrenda.

Osoko Bilkurako, HAKOBA Kirolako eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren azpibatzerdeetako kideek, beren jarduketa-mailaren esparruan, lehendakariari gai-zerrendan puntu jakin bat sartzeko proposamena egin diezaiokete, betiere behar besteko aurrerapenarekin egin beharko dute, eta proposamena justifikatzeko txosten labur bat helarazi beharko diote.

#### 23. artikulua.– Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren eraketa.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua, edozein jarduketa-mailan, modu baliagarrian eratuko da lehenengo deialdian kideen erdia gehi bat bertarutzen badira. Bilkurak baliozkoak izateko lehendakari titularra eta idazkaria bertaratu beharko dira.

2. – Quorum nahikorik ez badago, bigarren deialdian eratzeko aukera izango da, lehenengo deialdia baino hogeita hamar minutu geroago. Kasu horretan, nahikoa izango da kideen herena bertan egotea.

#### 24. artikulua.– Erabakiak hartzea.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuran, HAKOBA Kirolan edo azpibatzerdeetan bozkatzeko diren txostenak, gomendioak eta bestelako testuak bertaratutako kideen gehiengo soilez onetsiko dira. Halaber, berdinketa lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du.

2. – Boto zuzen, pertsonal eta eskuordetuezinaren printzipioen arabera izango da bozketa-sistema, eta isilpeko botoa bermatu beharko da kideetako edozeinek lehendakariari hala eskatzen dionean.

#### 25. artikulua.– Boto partikularrak.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko kideek boto partikularra eman dezakete beren jarduketa-mailaren esparruan gehiengoaren erabakiaren aurka baina, betiere, bilkura amaitu aurretik iragartzen badute horixe egitekoak direla.

2. – Boto partikularrak bilkura amaitu eta bost egun naturaleko epean bidali behar zaizkio, idatziz, kontseiluko idazkariari. Boto partikular horiek gehiengoaren erabakiaren testuari erantsiko zaizkio.

#### 26. artikulua.– Aktak.

1. – Osoko Bilkuraren, HAKOBA Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko azpibatzerdeen akordioak aktan jasoko dira. Aktak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Bilkuraren eguna, ordua eta tokia.

b) Bertaratuen izen-abizenak eta noren ordezkariak diharduten.

c) Aztertutako gaiak eta eztabaidatutakoaren eta hartutako erabakien laburpen txiki bat.

2. – Aktak Kontseiluko idazkariak sinatu behar ditu lehendakariaren oniritziarekin eta bilkura horretan bertan edo hurrengoan aurkeztuko dira onets daitezzen.

3.– Interes legitimoa dutela egiaztatzen dutenek eta Kontseiluko kideek idazkariarengana jo dezakete onetsitako testuen egiaztatzea eskatzeko.

27. artikulua.– Gastuak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko kideei edo bertan parte hartzen duten adituei ez zaie ordainsaririk emango. Dena dela, gastu eta dietak bai, ordainduko zaizkie, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zerbitzu-arrazoiengatik oro har aurreikusten diren baldintza, kopuru eta mugen arabera.

## VI. KAPITULUA TXOSTENAK PRESTATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

28. artikulua.– Kontseiluko txostenen helburua.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko txostenak dira administrazio publikoetako beste organo batzuen aurrean kontsultak egiteko ohiko modua, araudian aurreikusitako kasuetan, edo organo horiek berriaz eskatuta.

29. artikulua.– Esku-hartzea eskatzeko epea.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluak esku hartzeko eskaera kontsulta egin duen organoaren akordioaren bidez egingo da. Horrekin batera, txostenaren xede izango den proiektua edo espedientearen kopia helarazi beharko da.

30. artikulua.– Txostena egitea eta helaraztea.

Kontseiluko lehendakariak, esku hartzeko eskaera jaso ondoren, dagokion txostena egin eta helaraziko duen organoa izendatuko du, organo bakoitzaren eskumenen arabera.

31. artikulua.- Txostenaren edukia.

1. – Txostenean, kontseiluaren iritziaz gain, gaia onetsi den bilkuraren eguna eta bertaratu diren kideen izena jasoko dira. Halaber, aho batez onetsi den edo lehendakariaren boto erabakitzailearen bidez onetsi den jasoko da.

2. – Txostenari emandako boto partikularra edo partikularrak gehituko zaizkio, eta bertan egilearen eta bat egin duten kideen izena jasoko da.

32. artikulua.– Txostena bidaltzea.

Txostena kontsulta egin duen organoari helaraziko zaio, eta Kontseiluaren lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute.

33. artikulua.– Txostenen izaera.

1. – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluak derrigorrez esku hartu beharko du dekretu honetan edo beste edozein arautan aurreikusitako kasu guztietan.

2.– Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostenak ez dira lotesleak izango, salbu eta araudiz kontrakoa xedatzen bada.

34. artikulua.– Txosten berri baten beharra.

Txostenaren xede den lege-aurreproiektuan edo erregelamendu-xedapenaren proiektuan aurrerago aldaketak egiten badira, eta aldaketa horietan kontuan hartu ez badira Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren iradokizunak edo proposamenak, xedapen horien inguruko beste kontsulta bat egingo zaio Kontseiluari.

XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lehenengo kontseilua osatzeko proposamena.

Dekretu honen 7. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lehenengo kontseilukideak izendatzeko, deialdi zuzena jasoko ez dutenez, honela jokatu da:

- Dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuran ordezkariak duten organo edo entitate guztiek Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariari jakinaraziko diote zein pertsona proposatzen dituzten kasuan kasuko kargua betetzeko.
- Adierazitako epea amaitu eta hamabost egun gehigarriko epean, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak Kontseiluko kideak izendatuko ditu.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen azaroaren 7ko 220/2000 Dekretua indargabetu da berariaz, baita dekretu honetan ezarritakoari kontra egiten dioten xedapenak ere, maila berekoak edo beheragoak badira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.– Ordezotasuna.

Dekretu honetan aurreikusi ez diren gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean zehaztutakoa edo bere ordezkari xedapenak ezartzen duena aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Erregelamendu-garapena.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloan eskumena duen saileko titularrari baimena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren beste xedapen emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko .....aren .....(e)(a)n.

EUSKO JAURLARITZAKO LEHENENGO  
LEHENDAKARIORDE ETA KULTURA ETA  
HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

LEHENDAKARIA  
IMANOL PRADALES.